

---

Alkate jauna, Roberto eta herrikideok, Jerardo laguna, eguerdion danoi:

Jerardo Elortzaren ibilbide kulturalaren zertzelada batzuk, zertzelada soil batzuk besterik ez, ekarriko ditut gaurko omenaldi ekitaldi honetara; ze hemen bilduta zaudetenok nik baino hobeto ezagutzen dituzue omenduaren dohai eta talentuak. Ez zait iruditzen Jerardoren inguru intimoena asaldatuko zaidanik, etxeko gizona alde batera utzi eta, haren dimentsio sozialari begira, esaten badut kulturaren inguruko jakintza desberdinetan eman dituela Jerardok bere onenak. Esparru horiek euskal literatura eta hizkuntza, dialektologia, etnografia, historia eta ondarea dira. Denok duzue akorduan Oñatiko historia eta ondareari eskainitako liburu mardul eta dotore hura, herriko beste partaide batzuekin batera 82an argitaratu zen liburu monumental hura. Beste hainbeste Oñatiko euskararen azterketari dagokionez, 74tik aurrera etenik izan ez duen ahaleginak, Oñati eta bere inguruetara ere (Deba gairaitik Arabaraino) zabaldu den peskiza, gure euskalkiaren ezaugarri eta bereizgarriak xeheki aletzeraino. Beraz, hizkuntza eta dialektologia presente egon dira Jerardoren bizitzako azkeneko 50 urteetan. Ezin aipatu gabe utzi “Arrazola etxeko manuskritoak”: Manuel Umerezek, herriko apaiz benefizarioak bere ilobari ezkontza-egunerako helarazitako kristau-obligazinoen dekalogo laburra. Umerezen idatzi horrek balio dokumental izaugarria du, ez soilik hizkuntzarengatik, altxortxo horretan ere, ez ahaztu XIX. mende hasieran soilik katetximak zirela euskal arimarentzako elikagai ia bakarra. Arrazolako manuskritoaren balioa historikoa da batik bat, euskal nekazaritzaren eta kristautasun katolikoaren uztardura irmoaz eskaintzen zaigun informazio paregabearengatik. Orduko, eta baita geroago ere, baserriaren eta erlijioaren arteko batasuna erabateko izan da. Horretaz guztiaz mintzo zaigu manuskritoak; ze mezu antiliberala gainera zetorkigun Lehen gerra karlistaren ingurumarian! Baina artxibo lanen edo manuskrito ineditoen deskubritzaile trebearekin batera, inguruko etnografiak erakarriko du Jerardoren interesa. Gogoan dut Garaitarren eta Aldekoatarren arteko bazkariren batean – Olabarrietako soziedadean zen- nola jardun zuen hark Olabarrietako karobixei buruz.

Honekin guztiarekin bi asmo bete nahi nituzke: batetik, gizon honen jakintza-esparru zabala erakutsi; eta bestetik, txikitasunaren, xumetasunaren edo apaltasunaren bikaintasuna goretsi. Izan ere, lekuan lekuko lan ixil, apal eta xume hori gabe ezin baita letra handiz idatzitako historiarik eraiki, ez Literaturaren historiarik ez eta bestelako Historiarik ere, ohiturena dela, mentalitateena dela. Jerardoren lana Koldo Mitxelenaren edo Luis Villasanteren literaturako historiak hornitzera dator, haiek ezinbestekoa duten elikagaia eskaintzera. Ez gutxiago euskararen historia eta dilektologiari bagagozkio. Esker onez

hartuko lizkioke Julio Caro Barojak berak ere lan etnografiko edo herriko historia eta ondareari, dorretxeei eta karobixei eskainitako saioak. Halako ehundaka lanetatik sortuko dira -barojatarren leinuari eutsiz- etorkizuneko *Los vascos* bezalako liburu -gaur gaurkoz ere- erreferentzialak.

Nondik datorkio baina Jerardori euskararekiko zaletasun hori, debozio ere dei genezakeen hori. Seminarioa izan zuen Jerardok iratzarleku; Saturrararen ernalduraren, Donostian loratu. Hizkuntzaren kontzientzia hartzeak frankismopeko zapakultzaren kontzientzia hartzea zekarren. Bai, euskarazko idatzietara iristeak arrisku poxi bat hartzea eskatzen zuen, baita ezkutuko eta debekupeko sekretu bat konpartitzearen emozio bizia ere. Azken batean, Jerardo bera ere ondare erdi-debekatu hori isil-gordeka dastatzen zutenen artean zegoen, aukeratutakoen artean, nolabait esatearren. Eta sentsazio hori distiragarria zen. Ez dakit zenbateraino zauritu zuen Elizako fedearen graziak, baina seguru nago euskarak eta abertzaletasunak seduzitu zutela bete-betean. Eta urte haietan, neurri handi batean, seminarioetan gertatu zen hori. Vatikanoko II. Kontzilioaren bitartez eguneratu zuen katolizismoak mundu modernoarekin zuen harremana. Katolizismo sozialaren bidez, fede batetik besterako bidea egin zuen euskal gaztediak, eta Elizaren arrimuan gertatu zen doktrina-transferentzia hori, fede zaharreraren eta berriaren artean. Apostoladutza berri bat. Zenbat euskaltzale, abertzale eta ezkerreko militante ez ote zituen eman semanarioak! 65an Seminarioa utzi ondoren, euskalgintzan murgildu zen buru-belarri.

Nolanahi ere, bereziki antzerkiari jarritako arreta nabarmendu nahi nuke gaur hemen. Orduantxe zegoen puri-purian Donostiako "Jarrai" taldea eta ernamuinetan Bilboko "Kriseilu". Bigarren horretan hartu zuen parte Jerardok, ordurako Deustuko Unibertsitatean Filologia alemana ikasten. Kriseilun ezagutu zuen Gabriel Aresti, itzulpenak eta antzespenaren magia konpartituz. Bilboko kuadrilla hartan ez ziren Xabier Kintana edo Alfontso Irigoien faltako. Eta urte beretsuetan Oñatin sortutako "Oinatz" elkartearen ere ez zen falta izan antzerkiari eskainitako ahaleginik, eta han zebilen -nola ez- gure Jerardo. 60ko eraldatze hori hemen ere errotu zedin.

Gaurko euskal kultura ezingo genuke ulertu Jerardoren belaunaldia alboratuta, haiek jarri zituztelako abian kultura modernoaren oinarriak. Hirurogeiko urte haietan jarri baitzen abian gaur eguneraino etorri zaigun modernitatea, baserriko literatura eta kultura albora utzi eta kultura urbanoago eta modernoago bat ekarri zituena. Tennessee Williams, Arthur Miller, Albert Camus edo Bertolt Brecht oholtzara eramanez zirtuzten.

Txabi Etxebarrietak ez zekien euskararik, baina "giroan" zebilen Albert Camusen "Gizon zuzenak" (Les justes) -Donostiako "Jarrai" taldeak 66an taularatu zuen antzerki-lana-, irakurrita zeukan, eta badakigu barrenerainoko zirrara eragin ziola irakurketak. Ez zen

makalagoa izan Xabier Leteri ere eragin ziona; izan ere, Letek ere, Camusen obrako “terrorista” errusiarren telefono-kontraseina bere egin zuen: soilik telefonoaren hiru dei – lehenengoa jo eta eten; hurrengo bi deiak jarraian- entzun ondoren hartzen zuen telefonoa Letek. Literaturatik eguneroko bizitzara egin zuten salto telefono deiek. Beren buruak sakrifizioan eskaintzeko prest zeuden Camusen protagonista hunkigarri haien jarduna isildu egin zen 1968tik aurrera gure aretoetan. Izan ere, ekintzek oholtzatik jaitsi eta kalea hartu baitzuten urte horretan.

Arestiren bizitza ere itzali egin zen 1975ean, Francorena baino hilabete batzuk lehenago, eta erre gabe utzi zuen okasiñorako gordeta zeukan puroa.

Jerardoren ibilbidian lagun, lankide eta gogaide izandako asko fan dira; Jerardok hemen jarraiketan dau, gazte bere 74 urtekin. Hemenditxek nire eta hemen batu gazen danon eskerrik beroena emun gura dotzut egin dozun lan oparutangatik. Eta baita Oñatiko herrixai be nire zorionak, bere seme kuttunak omenduaz bere burua be ondratzen dauelako.

Eskerrik asko.